



BALIO PROPOSAMENA

Gaur egungo gizartean gero eta jende gehiagok bigarren eskuko arropa erosten du, baina askotan diruaren erabilerak ez du jarraipen sozialik eta ez du eragin positiborik sortzen. Eustaten (2023) arabera, Euskadiko biztanleen %38k azken urtean bigarren eskuko produktuak erosi dituzte, eta joera hori gorantz doa. Aldi berean, erakunde askok finantzaketa falta dute, eta pertsonak ez dakite nola lagundu modu erraz eta gardenean.

Horregatik sortuko dugu ANOTHER LIVE izeneko aplikazioa: bigarren eskuko arropa saltzeko plataforma solidarioa, non salmenten dirua ez den saltzailearentzat gordetzen, baizik eta aukeratutako kausa sozial bati ematen zaion (GKE, hau da Gobernu Kanpoko Erakundea, ikerketa medikoa, etab.).

Gure plataformaren berezitasuna ez da soilik bigarren eskuko arropa saltzea, baizik eta arropa horren bidez egoera txarrean dauden pertsonak laguntzea, bizitza hobea izateko.

Saltzaileek motibazio bikoitza dute: alde batetik, besteak laguntzeko aukera eta horrek dakarren onura emozionala, eta bestetik, sari eta abantaila praktikoak. Hau da, salmenta bakoitzarekin deskontuak lortuko dituzte aplikazioan erosketak egiteko, eta insigniak edo domina bereziak eskuratu ahal izango dituzte sare sozialetan partekatzeko.

Erosleek, berriz, arropa merkeagoa erosteko aukera izango dute, eta horrekin batera, kausa on bati lagunduko diote. Horrez gain, bidalketak doakoak izango dira, eta euren erosketak eragin sozial eta ingurumenekoa izango du. Gainera, Eurostaten (2023) arabera, Europako bigarren eskuko modaren merkatua azken bost urteetan %25 hazi da, eta gazteak dira gehien parte hartzen dutenak. Horrek erakusten du kontsumo arduratsua eta jasangarritasuna gero eta balio handiagoak direla gure gizartean.



ANOTHER LIVE plataformak hondakinak murrizten ditu eta kontsumoa ekintza solidario bihurtzen du. Horrela, saltzaileek zein erosleek ingurumena eta gizartea hobetzen laguntzen dute.

Iturriak:

Eustat (2023): Kontsumo-ohiturei buruzko inkesta. Bigarren eskuko produktuen erosketa Euskadin.

Oxfam (2022): Moda jasangarriaren eta kontsumo arduratsuaren inguruko txostena.

Consultancy.eu (2024): Europe's booming second-hand market to reach €86 billion by 2028.

RetailDetail.eu (2024): Online second-hand market in Europe accounts for €21.6 billion.